



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko irailaren 5ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko irailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko agorrilaren 31

Afitxatze eguna : 2023ko agorrilaren 31

2. ERABAKIA: OBREN BUKAERA ETA SEGIPENEN ZERBITZU AMANKOMUNAREN ESKUHARTZE ESPARRUAREN HEDATZEA– HIRIGINTZA BAIMENEN AZTERTZEA

(7.10 nomenklatura – Beste)

Euskal Hirigune Elkargoak, bere eremuko 99 herrirentzako kudeatzen ditu lurren okupatzeko eta erabiltzeko baimen eskaerak. Eginkizun hori 2017ko abenduaren 16ko Batzorde Nagusian zerbitzu amankomun baten sortzeko erabakiaren esparruan kokatzen da.

Txosten horien kudeatzeko adostu diren hitzarmenak direla-eta, herriek beren gain hartzen segituko dituzte eskaera txostenen eskuratze urratsak, erabakitze prozesua eta eskaera egileei ordenantzen jakinaraztea.

Hirigintza baimenen azterketa zerbitzuaren eginkizunen eta, obren arautasun eta segipen ekintzen arteko lotura kontuan izanik, 2021eko urriaren 2ko Batzorde Nagusiak Hazparne eskualdean «arautasun kontrola» egiteko zerbitzu amankomuna sortzeko onespina eman zuen, esperimentazio baten egiteko.

Geroztik, Hazparne eskualdetik kanpo ziren zenbait herri zerbitzu horren baliatzeko eskaera egin zuten.

Eskaera horiei erantzuteko, 2023ko uztailaren 1eko Batzorde Nagusiak zerbitzu amankomun horren eskuhartze esparrua hedatu zuen, hitzarmen bidez honako hiru eginkizunak eskainiz:

1. eginkizun mota: Hirigintza baimen bati loturiko lanen kontrolatzea;
2. eginkizun motza: Baimenik gabeko lanen kontrolatzea;
3. eginkizun mota: Obren segipena.

Ikusirik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-4-2 artikulua, eskumen transferituez aparte, herrien arteko erakunde publiko batek eta horretan bazkide diren herri zenbaitek zerbitzuak amankomunean garatzeko gaitasuna dutela dioena, izan eginkizun funtzional nola operazionalentzat, besteak beste auzapezek edo Frantziako estatuak hartu erabakien aztertzea;

Ikusirik, Frantziako hirigintza kodea eta bereziki R. 410-5 eta R. 423-15 artikulua, hirigintza izapideen azterketa bateratzeari buruzkoak, eta L. 480-1tik L. 480-5rako eta L. 610-1tik L. 610-3rako artikulua, hirigintza kodea urraketan jasotzeari buruzkoak, eta R. 462-1 artikulua eta ondorengoak, eraikuntza edo antolamendu lanen bukaerari buruzkoak;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoaren Batzorde Nagusiaren 2017ko abenduaren 16ko erabakia, zoruaren zuzenbideko baimenen aztertzeko zerbitzu amankomun baten sortzeari buruzkoa;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoaren Batzorde Nagusiaren 2021eko urriaren 2ko erabakia, non Hazparnealdean esperimendazio gisa "arautasun kontrola" zerbitzu amankomuna sortzea erabaki baitzen;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoaren Batzorde Nagusiaren 2023ko uztailaren 1eko erabakia, obren bukaeraren kontrolatzeko eta segitzeko zerbitzu amankomunaren eskuhartze esparrua hedatzeari buruzkoa;

Ikusirik, honi erantsiak zaizkion diru baldintza proposamena, eta hirigintza baimenei loturiko arautasun kontrola ekintzei eta obren segipenari buruzko hitzarmen proiektua;

Euskal Hirigune Elkargoko hirigintza baimenen azterketa zerbitzuaren eginkizunen eta, obren arautasun eta segipen ekintzen arteko lotura kontuan izanik;

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- Aurkeztu zaion obren arautasun eta segipen zerbitzu amankomunean harpidetzeari ALDE AGERTU DA;
- ONARTU DITU, erantsia den hitzarmenaren baldintzak eta tarifak, zehazturik halere kontrolak herriak galdeginik eginen direla, eta Elkargoak eskaera horri erantzuteko dituen ahalen arabera;
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari edo haren ordezkariari lehen aipatu hitzarmena izenpetzeko;
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari edo haren ordezkariari, erabaki honen egikaritzeko gastu oro egiteko eta erabaki oro hartzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko irailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/09/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/09/08an.